

**OTSOAREN IRUDIA**

**HAUR LITERATURAN**

**GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Monterde Alvarez, Saioa.

ZUZENDARIA: Etxaniz Erle, Xabier.

**2018/2019**



## LABURPENA

Gradu Amaierako Lan hau herri ipuinetatik gaur egungo ipuinetara izeneko gaiari buruzkoa da, ipuinetan ageri ohi den otsoaren irudia aztertuz. Otsoa lan honen protagonista nagusia izango da, ipuin klasikoetan zein ipuin berrietan. Herri ipuinetatik gaur egun idatzitako ipuinetara aldaketa handia bizi izan du animalia honen irudiak; beraz, bertsio berrietan eman den aldaketa kontuan hartuko da, otsoak duen paperari garrantzia emanez. Horretarako, gaiaren inguruko dokumentazio ezberdinen bidez marko teorikoa osatzea beharrezkoa izango da; ondoren, animalia honek protagonizatzen dituen hainbat ipuinen analisisa egingo da, eta horrela ikusi ahal izango dugu gaur egun aldatu egin dela otsoaren irudia.

**Hitz gakoak:** Literatura, Herri ipuinak, Otsoa, Aldaketa.

## RESUMEN

Este Trabajo de Fin de Grado presenta como tema desde los cuentos populares hasta los cuentos de hoy, centrándose en la figura del lobo en dichos cuentos. Por ello, el lobo será el protagonista principal de este trabajo, ya que se examinará la figura del lobo desde los cuentos populares hasta los cuentos modernos. La figura de este animal ha sufrido un cambio bastante importante, y por esa misma razón, se tendrá en cuenta el cambio del lobo en las nuevas versiones que protagoniza. Para ello es necesario completar el marco teórico por medio de diferentes fuentes, y analizar los cuentos seleccionados anteriormente y de esta manera podremos ver que hoy en día la imagen del lobo ha cambiado.

**Palabras clave:** Literatura, Cuentos populares, Lobo, Cambio.



## AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b>	<b>3</b>
Helburuak	5
<b>2. Marko teorikoa</b>	<b>6</b>
Haur eta gazte literatura	7
Ahozko literatura	10
Ahozko literaturaren biltzaileak	11
Herri ipuinak	11
Euskal literatura	12
Idatzizko literatura: Transtestualitatea	13
Transtestualitatea	14
Otsoaren irudia haur literaturan	16
<b>3. Metodoa</b>	<b>19</b>
<b>4. Emaidzak</b>	<b>21</b>
<b>5. Ondorioak</b>	<b>30</b>
<b>6. Erreferentzia bibliografikoak</b>	<b>33</b>
<b>7. Eranskinak</b>	<b>37</b>
I. ERANSKINA: Ipuinak	37
II. ERANSKINA: Fitxa teknikoa	38
III. ERANSKINA: Ipuinen fitxa teknikoak	40



## 1. SARRERA

Ipuinak herritarra liluratu du betidanik, miragarria delako baita entzulea misterioz beteriko mundu batera eramaten duelako ere. Mundu hori askotarikoa izan daiteke: lurpekoa, itsasokoa, leizeetakoa eta zerukoa. Beraz, ipuinen ibilbidea aztertzen bada, erabat aldatu direla ohartuko gara.

Hasiera batean ahozko tradizioa nagusitzen zen, eta ahozko ipuinak zirenez, denboraren, lekuaren eta kontatzen duenaren arabera moldatzen ziren, aldaketak lortuz. Haur eta gazte literaturaren hasierako kontakizunetan eta aspalditik aipatu izan diren aitzindariak aipatu behar dira, Grimm anaiak. 300 ipuin inguru idatzi eta bildu zituzten eta haur-literaturan ospe handia lortu zuten.

Istorioek amaiera idilikoa izan dezatela ohituta gaude. Ipuinetan pertsonaia onek irabazten dute, gaiztoek alde egiten dute, eta denak zoriontsu bizi eta eperrak jaten dituzte. Baina Sánchez Peraltak (2017) adierazten duen moduan, jatorrizko ipuin gehienek ez zituzten horrelako amaierak izaten, hala nola, Grimm anaiak, Perrault eta Andersen egileek egin zuten moduan, haien narrazioetan krudelkeria eta indarkeria nagusitzen ziren.

Egia da ipuin guztiek ez dutela errealitatearekin bat egiten, baina horrek ez du esan nahi umeei errealitatea eta fantasia nahasiko dutenik. Errealitatearen eta fantasiaren arteko oreka aurkitzean dago gakoa. Ipuinetan aldaketak egitea beharrezkoa da, baina alde negatiboak, krudelak edo indarkeria neutralizatzeko, onurak bultzatuz.

Sánchez Peraltak (2017) aipatzen duen moduan, ipuin guztiek funtzio bikoitza dute: alde batetik, entretenimendu atsegina dira, eta bestetik, mezu eta balio garrantzitsuak transmititzen dituzte. Gehienek izaera moralak dute, eta amaierak pertsonaia gaizki jokatuz gero kaltetu ohi dituzte, baina pertsonaiek ondo jokatzen badute saritzen dituzte. Baina oinarritzko funtzio bikoitza honetaz gain, Grimm anaiei ipuinek paper adierazgarri garrantzitsua dute.



Bereziki ohargarria da pertsonaia krudelen erabilera, batez ere irakurtzen ditugun istorio askotan “otsoa” pertsonaia agertzen da, piztia edota mamua bezala. Pertsonaia horrek ipuinaren protagonista beldurtzen du eta denok ezagutzen dugu, adibidez, *Txanogorritxu*, *Hiru txerrixo* edo *Zazpi antxume* ipuinen otsoa. Umeek pertsonaia gaiztoak erabiltzen dituzte gainerako pertsonen sentimendu adierazpenak ulertzeko. Horrela, izaki onak edo gaiztoak identifikatzeko aukera izango dute.

García (2017) aipatzen duen moduan, hasiera batean otsoaren irudia haurrak gurasoen esanak betetzeko erabiltzen zen, garai batean basoan galtzea benetako beldur moduan ikusten zelako. Baina denboraren joanarekin, arrisku hura txikiagotzen joan zen, irudizkoa izatera bihurtu zenera arte. Hartatik, helduak otsoaren irudia beldurra emateko erabiltzen hasi ziren.

Otsoak ikaritzen duen figura hartzen du eta beldurra edota izua inspiratzen duen piztia bezala tratatzeaz gain, haurrak gainditu beharreko elementu nagusia dela esaten da (García, 2017). Horregatik, kontatzen diren istorioetan haurrek beldur hori gainditu behar dute, adibidez, *Txanogorritxu* ipuinean ehiztaria izango da otsoarekin (beldurrarekin) amaituko duena eta *Hiru Txerrixoen* ipuinean, protagonistak otsoa engainatuko dutenak izango dira.

Otsoaren zorirako, ipuinetan hasiera batean animalia arriskutsua bezala ageri ohi da, baina adimena faltan duen pertsonaia moduan agertzen da, azkenean gainerako pertsonaiek burla egiten bukatzeko. Hortaz, irakurlea pertsona nagusiarekin identifikatzen denez, bere burua heroia moduan ikusteko aukera izango du, otsoa garaitu duelako. Aurreko guztiak ez du esan nahi otsoa beti irudi beldurgarri batekin lotzen dela. Izan ere, otsoa animaliarik bikainena dela esan daiteke, langilea eta zintzoa baita.

Hala ere, otsoaren irudia oso konplexua da, baita aberasgarria ere. Munduko animaliekin alderatuz, ez da animaliarik beldurgarriena. Nahiz eta ipuinetan tuntuna



bezala irudikatu, oso animalia azkarra da, maitagarrien ipuinetan gertatzen ez den bezala.

Maitagarrien ipuinetan otsoa pertsonaiaren irudia iruzurtua egon da. Haur eta Gazte Literatura boom-a izan zenetik, otsoaren irudia era sortzailean ere landu duten ipuin asko sortu dira. Haur literaturan pertsonaia honen irudia hain landua egon denez, ezinezkoa dirudi begirada berriak oraindik eskaini ahal izatea. Baina bai, oraindik ere otsoaren pertsonaia lantzen duten ipuinak daude eta azken urteetan zehar gero eta gehiago sortu dira, batez ere, otsoaren irudia beste ikuspuntu batetik erakusteko. Istorio horietan, berriz ere, hartaz barre egiten dute, asko pentsatzen ez duen pertsonaia moduan ikusten dute, engainatzeko erraza den pertsonaiaren irudia hartzen du, baina istorio guztiak ez dira horrelakoak izango.

Beraz, ipuin tradizioaletan, otsoa pertsonaia maltzurrena da, hots, irabazi behar den etsaia nagusia. Oraingo ipuinetan, aldiz, otsoa gizakien ezaugarriez josita ageri da, gaiztoa eta lotsagabea, baina horrez gain, pertsonaia maitekorra izan daiteke, gogoeta egitera eramango duena.

## **Helburuak**

Gradu Amaierako Lan hau egiterako orduan zenbait helburu mota zehaztu behar izan ditut: alde batetik, kolektiboak edo akademikoak deritzenak, eta bestetik, lanaren helburu nagusia, proposatutako hipotesiekin eta aurrera eramango den metodoarekin bat eginez.

Helburu akademikoen kasuan, lan funtzional bat egiteari garrantzia eman nion, hau da, gaur egun zein etorkizunean erabilgarria eta aberasgarria izango zaidan zerbait burutzeari. Horrela, irakasle moduan lan egiten dudanean, oraingoan topatutako



literaturaren altxorra umeei ere hurbildu ahal izango diet. Gainera, niretzat gai berri samarra izanik, irakasle bezala trebatzeko ere baliagarria izango zaidalakoan nago.

Beraz, aipatutakoa aintzat hartuz, ondorengo hau izango da egitasmoaren helburu nagusia, hala nola, “Gaur egungo literaturan otsoaren irudia aztertzea, baita lehen eta oraingo literaturan emandako aldaketak aztertzea ere, otsoaren irudiaren bidez”.



## **2. MARKO TEORIKOA**

Azalduriko helburuak lortu ahal izateko eta Gradu Amaierako Lanaren alde teorikoari eusteko, hurrengo lerroetan gaiari buruzko marko teorikoa dugu. Modu gradual batean, literaturaren orokortasunetik otsoa haur literaturara izandako ibilbide laburra egingo da. Gisa horretan, haur eta gazte literaturak (HGL) izandako bilakaeratik hasiko gara; ondoren, haur literaturan otsoaren irudiaren bilakaera nolakoa izan den sartuz.

### **1) Haur eta gazte literatura**

Mendeetan zehar, literatura gero eta presentzia gehiago irabazten joan da, eta denbora tarte horretan, literaturaren aldarrikatzaile eta idazle askok hainbat definizio erabili dituzte haur eta gazte literatura definitzeko (Cervera, 1989; Tejerina Lobo, 2005).

Lehen aipatu bezala, literatura terminoaz asko eztabaidatu da, hala nola, ez duela mugatzen duten kalifikatzaileekin; baliozko kalitate-maila soilik duela (literatura ona eta literatura txarra); adina ezin dela irizpide bereizletzat hartu; edo helduen literaturaren egokitzapena eta sinplifikazioa baino ez dela izango. Orokorrean, Haur eta Gazte Literatura, irakurketarekin batera, haurtzaroko eta literaturako ikuskera transmititzen den lekua izango da (Tejerina Lobo, 2005; Falbo, 2016).

Literatura testuaren eta irakurlearen arteko harremanaren ondorioztat har dezakegu, hartzaileak sortutako irudimenaren mailan jaso. Halaber, batzuentzat literatura izan daitekeena, beste batzuentzat ez da literatura izaten; testu baten aurrean, pertsona bakoitzak modu ezberdinean jokatzeko duelako (Etxaniz Erle, 1996).

Literaturaren terminoarekin gertatzen den moduan, haur literatura definitzea zaila egiten da. Cerverak (1989) aldarrikatzen duen moduan, haur literatura haurrena izaten saiatzeagatik ez du esan nahi literatura izateari utzi behar duela. Horren ildotik,





Etxanizek (1996) bere lanean zehazten duen bezala, J. Iturraldeko aurreko definizioa osatzen du, literatura ona bada, hots, kalitatezkoa, ez duela inolako adinik. Alegia, horrek esan nahi du, ipuina, liburu edota eleberri bat haurrentzat ona bada, helduentzat ere ona izango dela.

Etxanizek (1996) egindako tesian aipatu zuen bezala, W. H. Auden-ek haur eta gazte literatura ez da haurrek irakurtzen, ulertzen eta disfrutatzen duten literatura, baizik eta urteak aurrera joan ahala irakurtzen, ulertzen eta gozatzen jarraitzen duten literatura dela aldarrikatzen zuen. Horregatik, literaturan erabiltzen diren irizpideak erabil daitezke, ulermena haien artean. Beraz, aurrekoa kontuan harturik, haur eta gazte literatura, idazlearen eta testua irakurtzen duen haurren arteko akordioa izango da, testuaren berezitasuna ahaztu gabe.

Nahiz eta haur eta gazte literaturak mugatzen duen esparrua zaila izan, haurrentzat edo gazteentzat idatzia izan ala ez izan, beraiei irakurtzean atsegina sentiarazten dien testu multzoa litzateke, hizkera berezia izanez. Haur eta gazte literaturak hiru iturri nagusi dituela azpimarratzea beharrezkoa da: alde batetik, haurrentzat, bereziki, idatzitako lanak, bestalde helduentzat izanik haurrek bereganatu dituztenak eta azkenik, folklorea. Folkloreak barruan jakituria transmititzen da, herri baten jakituria, hain zuzen ere. Hala nola, herriko esaerak eta ipuinek (*Txanogorritxu*, ipuin tradizionala, hots, atemporal) ahozko kulturaren jakintza erakusten dute (Etxanize Erle, 1996).

XX. mendean euskarazko haur-literatura hasi arren, XX. mendeko azken bi hamarkadetan haur eta gazte literaturak izugarritzko hazkundera lortu zuen. Aipaturiko hazkunderan hiru idazle nagusi nabarmendu behar dira: helduen literaturan dauden bi idazle nagusienetarikoa, B. Atxaga eta A. Lertxundi, eta euskal HGLn ekarpen garrantzitsuenak egin dituenak, M. Landa. Beraz, gaur egungo egoera aztertzerakoan, ezin da ahaztu zeintzuk izan diren klasikoek itzulpenak edo folkloreak jasotako bildumak, besteak beste. Azken urteotan idatzi eta itzulitako ehundaka obra eskura



daude, Stevenson, Perrault, Carroll, Grimm, Nöstlinger, Dahl edo Lindgren idazleen obrak ere ezagunak dira euskal esparruan (Etxaniz Erle, 1998).

Vásquez Vargasek (2003) aipatzen duen moduan, bi idazleen ekarpena azpimarratzea beharrezkoa da, Carolina Toral eta Carmen Bravo Villasante idazleak hain zuzen ere. Literatura aztertzaileentzat informazio estimagarria izan dira Toralek idatzitako *Literatura infantil española* (1957) eta batez ere, Bravo Villasantek idatzitako bi obra hauek: lehenengoa, *Historia de la literatura infantil española* (1959) eta bigarrena, berriz, *Antología de la literatura infantil en lengua española* (1962). Adibide esanguratsuak dira garaiko egileak eta haien obra guztiak jasotzen eta ordenatzen dituztelako. Azken finean, munduko haur literatura osoaren ibilbide historikoaz eginiko azalpen zabalak eskaintzen dituztenez, informazio iturri estimagarria direla nabarmendu behar dira. Era berean baliagarri izan dira azken urteotan unibertsitate ikaskuntzen garapenaren lekuko diren X. Etxaniz Erle (1996) eta J. M. Lopez Gaseni (2000) irakasleen ikerlanak.



## 2) Ahozko literatura

XVIII-XIX. mende bitartean, Alemanian sortu eta garatu zen Erromantizismo mugimenduak ahozko literaturari balio berezia aitortu ziona. Orduz geroztik, ahozko literaturak eta folkloreak balioa hartzen hasi ziren. Hala nola, herriak herri-kantuak kantatzen eta herri-ipuinak kontatzen zituzten, herriaren iragana ezagutzeko bidea harturik (Etxebarria eta Kalzakorta, 2009).

Etxebarriak eta Kalzakortak (2009) azpimarratzen dute Mircea Eliade idazleak ahozko literatura definitu zuena, hala nola, noizbait norbaiten ahotik irten dena eta oroitzapenak gorde izan duena da. Hau da, herri-literatura ahoz aho zabaltzen dena da, belaunaldiz belaunaldi transmitituko dena herriaren arimaren gordailua, alegia. Horregatik, ahozko literaturan memoriak garrantzia handia dauka eta honen ildotik jarraitua beste ezaugarri bereziak nabarmentzen ditu: errepikakorrak eta aldakorrak dira (ez dira beti berdin-berdinak), eta denboran zehar edukiak galtzen eta gehitzen dira, besteak beste (Etxebarria Zamalloa, 2019).

Laburbilduz, herria da protagonista, ahoz ahozko transmisioa ematen delako eta belaunaldiz belaunaldi igortzen delako, herri tradizioa eta jakituria bilduz. Kontzeptu horretan oinarritzen da ahozko literaturaren testuak sailkatzerakoan egiten den banaketa: alde batetik, tradiziozko testu-bildumak, adibidez, ipuinak, eta bestetik, ez tradiziozkoak, bertsolaritza. Beraz, ezaugarri horiek guztiak kontuan hartuta esan daiteke ahozko literatura bizirik dagoela, etengabe aldatzen eta birsortzen delako (Otaegi, 2018).

Aurretik aipatu bezala, ahozko literatura tradizioz transmititzean oinarritzen da, eta belaunaldiz belaunaldi transmititzen dena tradizioko literatura edo literatura tradizionala esaten zaio. Ahozko literatura zabaldu zutenak gutxi batzuk izan ziren, baina mugimendu honen aitzindariak Grimm anaiak izan ziren, ipuin-biltzaile ezagunak bihurtuz (Etxebarria eta Kalzakorta, 2009; Etxebarria Zamalloa, 2019).



### ***Ahozko literaturaren biltzaileak***

Ugariak dira euskal ipuinen eta kanpokoen artean dauden antzekotasunak, lehenengo ipuin-biltzaileak gure artean kanpokoak izan zirelako, hain zuzen ere; baina badira gure ezaugarriengatik berezirik dauden antzekotasunak. Gure ipuin biltzaile nabarmenen artean gehienak gizon erlijiosoak izan ziren, hots, apaizak, eta hori ipuinetan nabaritzen da (Etxaniz Erle, 2000; Etxeberria Zamalloa, 2019).

Euskal herri ipuinen biltzaileen ikuspegiak, eta ideiek, gureek bezala, eragina izan dute ondoren jaso ditugun lanetan. Lehen ipuin eta mito biltzaileak Jean François Cerquand, Wentworth Webster, Jean Barbier, Resurrección María Azkue, Mayi Ariztia eta Joxe Migel Barandiaran ditugu (Etxaniz Erle, 2000).

### ***Herri ipuinak***

Lehen aipatu bezala, ahozko literatura ahozko literaturaren ezaugarriarik nagusia dugu. Izan ere, kontaketa hitzaren barruan, hitzez, ahoz aho eta belaunaldiz belaunaldi ahotik belarrira izan ditugun hainbat kontu, kondaira eta ipuin ditugu, besteak beste.

Ipuinek hitzez adierazi ezin daitekeena irudikatzeko ahalmena daukate, pertsonaia, eta metafora ezberdinen bidez, adibidez, herri ipuinak. Herri ipuinak ahozko ipuinak dira, hots, garai batean kontatutako istorioak gaur egun kontatzen direnak eta diskurtsoaren ezaugarrietan oinarrituta daudenak, hain zuzen ere. Egiturari dagokionez, hainbat errekurtso nagusitu daitezke: errepikapena (pertsonaiak eta ekintzak), hirukotasuna (ekintzak, protagonistak eta zailtasunak), oposizioa (ona eta gaiztoa), bigarren mailako pertsonaiak agertzen dira, eskematizazioa (deskribapenak oso eskematikoak), ekintzen bidezko karakterizazioa, trama bakarra eta azkenik, sarrera eta amaierako formulak egitura ematen diote ipuinari (Granado Lopez de Letona, 2015; X.X, 2019).



Hurrek ipuinekin konektatzen dutenez, herri ipuinak zein ipuin klasikoak oso garrantzitsuak dira haurren sentikortasuna ukitzen eta erakartzen dutelako. Bestalde, ipuinek hartzaileen irudimena eta pentsamendua pizten dute. Juan Karlos Alonso psikologoak (in X.X., 2019) adierazten duen moduan, ipuinek haurren barruko gatazkak lantzen dituzte, hau da, haurren sakontasunean sartzen dira, eta oso gai garrantzitsuak lantzen dituzte, esate baterako, heriotza, gezurrak, jeloskortasuna eta bakardadea. Beraz, oso garrantzitsuak dira haurren garapena sustatzeko (Granado Lopez de Letona, 2015).

### ***Euskal literatura***

Hizkuntza bakoitzak berezko literatura sortzen du, nahiz eta hizkuntza guztiak idatziak ez izan. Hala ere, hizkuntza bakoitzak literatura bat dauka, kasu honetan ahozko literatura izango dena. Hizkuntzak idatziak izanik, bi literatura ezberdin bereizi daitezke: alde batetik, ahozko literatura eta bestetik, idatzizko literatura. Beraz, Euskal literatura bi atal nagusitan bereiz daiteke: idatzizkoa eta ahozkoa, aurretik ikusi den moduan (Paya, 2013; Etxebarria eta Kalzakorta, 2009).

Bi literatura mota horiek, ahozkoak zein idatzizkoak, ez dute jakitunen begirune bera izango. Hau da, ahozko literaturari beti egokitu izan zaio bigarren mailako izaera, herri xehearen literatura izan ohi delako, eta guzti horrek gutxiesten du. Idatzizko literatura, aldiz, jakitunena dela pentsatzen denez, maila goratu batean jarriko da, nahiz eta ahozko literatura ia denen sorburutzat jotzen bada ere. Baina berez elkarren osagarri dira, literatura idatzia eta ahozkoa, biek gorputz bera osatzen dutelako (Paya, 2013; Etxebarria eta Kalzakorta, 2009).



### 3) Idatzizko literatura: Transtestualitatea

Aipatu bezala, azken urteotan gure kulturaren, hots, euskal kulturaren, aldaketa izugarria gertatu da, eta hori egiaztatzeko, literaturaz izandako eboluzioa dugu, haur eta gazte literaturarena, alegia. Izan ere, gure historia literarioko aldi interesgarriena eta aipagarriena azken ehun urteetan kokatzen da (Etxaniz Erle, 2005; Olaziregi, 2005).

1545an euskaraz idatzitako lehen liburua argitaratzen da, Bernat Etxeparek idatzitako *Linguae Vasconum Primitiae* izeneko poema-liburua. Euskal Herrian, XIX. mendearen hasieran Bizenta Mogelek (1782-1854) idatzitako *Ipuin onac* (1804) aipatu beharra dago, lehen liburu literatur didaktikoa (Etxaniz Erle, 1996; Olaziregi, 2005).

Itzulpenei dagokienez, itzultitako ipuin tradizionalak aipatu behar dira: Grimm anaienak, J. Altunak itzultitako *Ipuinak* (1929) eta J. A. Larrakoetxeak itzultitako *Grimm Anaien Berrogeitamar Ume-Ipuin* (1929). 60ko eta 70ko hamarkadetan egin ziren itzulpenei dagokienez, Donostiako argitaletxe batek Jon Oñatibiak itzultitako ipuin tradizionalak argitaratu zituen itzulpenen artean, *Txanogorritxu* ipuina aurki daiteke. Egokitzapenak umeentzat ziren, ilustrazio handiekin eta amaiera zoriontsuarekin (Olaziregi, 2005).

M. López Gasenik (2000) adierazten zuen moduan, egindako itzulpenak beste ezaugarri batzuk ekarri zituen: alde batetik, gai berritzaileak agertzen dira, adibidez, migrazioa, bidaia bitxiak, ... baina itzulpenak betetzen zituzten funtzio didaktikoak moralak ziren; eta bestetik, azken 10-15 urteetan, itzulpen gehienak gaztelaniatik pasatu ziren, zubi moduan, eta adaptazio ideologiko-didaktikoak nagusitu ziren.

80ko hamarkadako HGLak irakurleek egiten duten eskari handiari aurre egin behar izango dio. Horregatik, urteetan zehar euskaraz berrargitaratutako liburuak HGL liburuak izan dira. Nolanahi ere, 80ko hamarkadako protagonistak HGL idazleak eta ilustratzaileak nabarmendu behar dira: P. Añorga, B. Atxaga, M. Landa, M. López, A. Lertxundi, J. Ormazabal, A. Balzola eta J. Mitxelena; baina 90eko hamarkadan egile



gehiago ezagutzera eman zirela azpimarratu behar da, pixkanaka-pixkanaka gero eta gehiago gehituz (Olaziregi, 2005).

### ***Transtestualitatea***

XX. mendeko ikertzaile anitzek, kasu honetan literaturaren eremuan, idazlearengandik testuak ukan dezakeen autonomia aztertu dute, testuen arteko harremanak miatuz. Gerard Genette idazle frantsesa dugu eremu kritiko horretan, ekarpen handiko ikertzailea, testuen arteko harremanen sailkapena modu berri eta orokor batez aurkezten digu, transtestualitatea izena emanez (Cañete, 2010).

Transtestualitateak testu batek beste batzuekin sortzen dituen harreman motak dira, gorderik daudenak ala ageri direnak sailkatzera saiatzen da eta transtestualitatearen barnean bost harreman mota bereiz daitezke: intertestualitatea edo testuartekotasuna, paratestua, metatestualitatea, hipertestualitatea eta artxitestualitatea (Cañete, 2010).

Liburu berean bi testu ezberdin elkartzen direnean, intertestualitatea edo testuartekotasuna ematen dela aldarrikatzen du, hau da, testu batek bestea aipatzen, erabiltzen edo berridazten duenean. Paratestua, aldiz, testuak bere ingurumenarekin daukan loturak izendatzean oinarritzen da. Hau da, idazki nagusia aurkezten, inguratzen, tartekatzen eta bururatzen duten osagaiak dira paratestuan sartzen direnak. Nahiz eta testu osagai gisa agertu, esanahia dute eta, batzuetan, beren balio literarioarentzat ikertuak dira. Metatestualitatea, bestetik, bi testuren arteko lotura agerian daukan testua da, batak bestea solasgai gisa hartzen duenean. Beste testu batean aipatzen ari den hura metatestua deitzen da, lan monografikoak edota egiten diren tesiak adibidetzat eman ahal dira. Hipertestualitatearen kasuan, testuaren bi parte hartzen dira: alde batetik, jatorrizko testua, eta bestetik, hipotestua izeneko testua, jatorrizko testutik desbideratzen dena. Irakurleak edo hartzaileak jasotzen duena testu deribatua edo hipertestua izango da. Hipotestua inplizituki egongo da. Azkenik, artxitestualitatea



sistema kritikoan azpisailetan aurkitzen den egitura zabalena da. Sail horretan, literaturan erabiltzen diren sailkapen nagusiak izendatzen ditu Genettek, hala nola, diskurtsoak, esakuntza motak, genero literarioak, eta abar (Cañete, 2010). Beraz, bost harreman mota horiek transtestualitatea osatzen dute, baina ez dago muga finkorik haien artean, batzuk besteetatik guztiz hurbil baitira, hala nola, intertestualitatea eta hipertestualitatea (Cañete, 2010).





#### 4) Otsoaren irudia haur literaturan

Ipuinek metafora eta pertsonaia desberdinen bidez, hitzez adierazi ezin daitekeena irudikatzeko ahalmena daukate eta zuzen-zuzenean haurrarekin konektatzen dute. Ipuin klasikoak haurraren barruko gatazkak lantzen ditu, haurraren sakontasunean sartzen direlako, eta oso gai garrantzitsuak lantzen dituztelako, esate baterako, heriotza, bakardadea, beldurrak, jeloskortasuna, gezurrak... (X. X., 2019).

Ipuin klasikoek egitura berbera errepikatzen dute, ondo definitutako hasiera batekin, eta argumentuak aurrera egiten du amaiera pozgarri batera iritsi arte. Amaiera positibo guztiak ez dira hain onak ipuinetan ageri ohi diren pertsonaia guztientzat. Hala ere, ipuin klasikoek izugarriko sinbologia daukatela aipatzea funtsezkoa da, eta horregatik ipuin klasikoetan errepikatzen den pertsonaia aztertzea funtsezkoa izango da, kasu honetan, otsoaren irudia (X. X., 2019).

Otsoa egiptoarren eta erromatarren arteko balioko sinboloa da eta zaindari handiaren sinbolo bezala agertzen da. Eskandinaviar mitologian *Fenrir* izeneko otsoa azaltzen da, otso beldurgarria eta erraldoia zen, burdizko kateak hondatzen zituen. Munstro honek jainkoen ilunabarreko espetxea ere apurtu behar izango du, hots, munduaren amaiera eta eguzkia irentsi. Kasu honetan, otsoa gaitzaren hasierako sinbolo bat bezala agertzen da eta horrez gain, hitzarekin eta pentsamenduarekin bat dator (Cirlot, 2004).

Haur eta Gazte Literatura historian zehar, otsoari hainbat paper ezberdin egitea egokitu zaio, hala nola, gaiztoaren, ergelaren eta galtzailearen rolak, besteak beste. Pertsonaiaren izaera moralistak haurraren sormena suspertzera eraman du, mezu garrantzitsuak helaraziz, adibidez, ezezagunekin ez hitz egitea, hau da, ezezagunengan ez fidatzeko (Pizarro, 2013; García, 2017).



Mendeetan zehar idazle asko gaizkiaren inguruko irudikapenak ematen saiatu dira, baina ezin izan da modelo izatedun garbien eta sinpleena hobetzen: maitagarrien ipuinetan ageri ohi den otsoa (Gómez-Jurado, 2015).

Elosegi Irurtiak (1997) adierazten duen moduan, istorioa, ipuin, kondaira, toponimoetan eta, oro har, gure kulturean, otsoa lehen mailako protagonista dugu. “Otsaila” hitza bera ere, honen adibidetzat har genezake, zenbaitentzat otsoaren hilabetea adierazten baitu.

Herri txikiko nekazariak otsoa mehatxu nagusitzat zuteneguz istorioak sortu zituzten, basoan sartzea eta otso batekin topo egitea beldurra zutelako. Beraz, otsoa istorioetan gaiztoa bezala irudikatzea ez zen zaila egiten. Aldi berean, istorioek basoan gertatu daitezkeen arriskuaz eta arauak errespetatzeaz ohartaraztea baimentzen zuten (García, 2017).

Adierazi bezala, haur-ipuinetan otsoaren irudiak arkumeen eta ardiaren erasoekin lotura zuzena dauka, baina gizakiari ere lotura dago. Ahozko tradizioetatik otsoaren presentziak arriskuarekin, gaiztakeriarekin, traizioarekin eta mesfidantzarekin erlazionatzen da. Beraz, orokorrean otsoak gaiztakeria irudikatzen du eta historian zehar idatzitako haur ipuinetan otsoaren irudiak protagonismo eztabaidaezina izaten duela azpimarratu daiteke. Baina ezin da ahaztu otsoak entzuleak lasaitzeko ipuinaren galtzailea izan behar duela (Pizarro, 2013; García, 2017).

Otsoaren pertsonaia hobeto ikusteko hiru ipuin klasiko aipatzea beharrezkoa da, hala nola, *Txanogorritxu*, *Hiru txerritxoak* eta *Otsoa eta zazpi antxumeak*. Hiru klasiko hauek pertsonaia gaiztoaren irudia duten ipuin erakusgarriak dira, eskarmentua jasotzen duena (García, 2017).

*Txanogorritxu* ipuinean otsoaren gaiztakeria nahiko ondo irudikatzen da. Otsoak Txanogorritxu basoan zelatatzen du; baina ez du jaten, berarekin hitz egiten du, ondoren amonaren etxera joateko esaten dio berak nahi duenera bidaliz. Beraz, otsoa pertsonaia



maneatzailea dela ikus daiteke. Amona irensten du eta Txanogorritxu itxaroten duen bitartean amonaz janzten da. Neskatoa heltzean amonarekin egindakoa berdina egiten saiatzen da, baina ehiztari batek ekintza hori eragozten du. Ehiztariak otsoaren sabela irekiz harriz betetzen du eta ibaiaren hondora erortzen da (Gómez-Jurado, 2015; García, 2017).

*Hiru txerritxo*en ipuinean, otsoa txerritxoak egindako hiru etxeak, banan-banan, botatzen ahalegintzen da. Putz eginez lastozko eta egurrezko etxeak botatzen ditu, baina ez adreiluzko etxea. Tximiniatik sartzean, ontzi batekin topo egiten du, ura-irakiten dagoen ontzi batekin. Otsoak alde egiten du hiru txerritxoak jan gabe (García, 2017).

Azkenik, *Otsoa eta zazpi antxumeen* ipuinean, otsoak zazpi antxumeak engainatzen ditu. Zazpi antxumeetatik sei jatea lortu zuen, baina azken honek ihes egitea lortzen du eta ama heltzean gertatutakoa azaltzen dio. Segituan, ama basora joaten da otsoaren bila, lotan aurkituz. Sabela ireki, bere sei seme-alabak atera eta sabela harriz betetzen dio. Otsoa esnatzean ura edateko ibaira hurbiltzen da eta harrien pisuengatik erori eta ito egiten da (García, 2017).

Betidanik haur literaturan otsoak istorioetako gaizto bezala tratatu ohi dira, baina otsoaren sortzaile berriek pertsonaia honek bere mendekua hartzea nahi dute eta baita irakurleen bihotzean tartetxea lortzea ere. Beraz, ipuin klasikoek berridazketak eskuratzea beharrezkoak ditugu, haurren mundu sinbolikoak eta errepresentazioak aberastea, malgutzea eta berridaztea, eta kasu honetan, otsoaren rola aldatzeko sortuak izan dira, gaiztoa izatetik ona izatera (Pizarro, 2013; Egaña, 2016; García, 2017).



### 3. METODOA

Lan honen metodoa lau ataletan bereiziko da: lehenengoan, ikerketan zer egin nahi den, zer aztertuko den eta nola egingo den azalduko da; bigarreanean, aldiz, hipotesiak zeintzuk diren aipatuko dira; ondoren, jarraituko den corpusa adieraziko da; eta azkenik, metodoan erabili den fitxa nola egin eta zein den azalduko da.

Ikerketari dagokionez, otsoa haur literaturan aztertuko da, herri ipuinen eta gaur egungo ipuinen aldaketak eman diren ala ez ondorioztatzeko. Horretarako, otsoak protagonizatzen dituen hainbat ipuinen irakurketa egingo da. Aztertuko diren ipuinak irakurri ondoren, fitxa teknikoa egitea beharrezkoa izango da, otsoaren irudia aztertu ahal izateko.

Beraz, metodoarekin jarraitzeko hipotesiak zeintzuk diren aipatu beharra dago. Literaturaren historian zehar otsoari askotariko paper ezberdinak egitea egokitu zaionez eta idazle askok gaizkiaren inguruko irudikapenak emateko erabili izan ohi dutenez, otsoaren irudia aldatu egin da eta lan honen bidez hurrengo hipotesiak baieztatzen ala ezeztatzen saiatuko naiz.

1. Gaur egungo otsoaren irudia beldurra ematea baino barrea eragiteko erabiltzen da.
2. Lehen otsoa handia, indartsua eta heldua zen, baita gaiztoa eta gezurtia ere; orain, aldiz, ez.
3. Herri ipuinetan otsoa basoan irudikatzen zen; oraingo ipuinetan, ordea, hirian.

Corpusari dagokionez, hautatutako ipuinak guztira 15 izango dira (kasu batean ipuin beraren bi bertsio diferente aztertuko dira), herri ipuinetatik abiatuz gaur egungo ipuinetara. Hau da, 15 ipuinetatik 3 herri ipuin eta 12 berri izango dira, euskaraz (9 ipuin) zein gazteleraz (5 ipuin), baita hitzik gabeko ipuin bat ere (ikus I. eranskina). Aukeratutako herri ipuinak otsoa agertzen den ipuin ezagunenak direlako izan da, denok ezagutzen ditugulako. Kasu honetan, Grimm anaiek bildutako eta moldatutako hiru herri



ipuin klasikoak hautatu dira: *Txanogorritxu*, *Hiru Txerritxoak* eta *Zazpi Antxumeak*. Gaur egungo ipuinak, aldiz, otsoa agertzen diren ipuinak aukeratu dira, lehen aipatutako herri ipuinekin erreferentzia dutenak, erreferentzia zuzena ala zeharkakoa, alegia.

Horren ildotik jarraituz, ipuinen aukeraketa nolakoa izan den azaltzea beharrezkoa da. Lehen aipatu bezala, aztertu diren hamabost ipuinetatik hiru herri ipuinak izango dira, eta oraingo ipuinak, berriz, hamabi ipuin. Azken ipuin horien aukeraketa sistematikoa izan da. Hasiera batean, otsoaren pertsonaia zituzten ipuinak bilatu dira, bai liburutegian galdetuz, bai interneten bidez bilatuz. Bilaketa hura egin ostean, lanean erabiliko ziren ipuinak apuntatu izan dira, bilatutako guztietatik interesgarrienak zirenak, lan honen helburu nagusia denboraren poderioz otsoaren irudia aldatu den ala ez aztertzea delako. Behin zenbait ipuin apuntatuta izan ondoren, eskuratu eta irakurri dira, ondoren azalduko den fitxa teknikoa aurrera eraman ahal izateko. Azkenean, hamabi ipuin berri aukeratu, irakurri eta aztertu dira, ipuin horiek otsoaren irudia era esanguratsuan adierazten dutelako eta horrez gain, hasieratik hautatutako hiru herri ipuinekin lotura dutelako.

Metodoarekin bukatzeko, otsoaren irudia ipuin ezberdinen analisisia aurrera eraman dadin, fitxa tekniko bat erabiliko dut, beharrezkoa baita analisi objektibo bat egiteko. Fitxa teknikoa ipuinen analisi guztiak taulen bitartez egingo dira errazago ikus daitezen. Beraz, fitxa teknikoa egiteko hainbat item kontuan hartu izan dira, hala nola, pertsonaiaren protagonismoa, ipuinean zehar izandako eboluzioa, fisikoa, izaera, elikadura, kokapena eta pertsonaiaren irudia zerk esanahi duen kontuan hartuko da (ikus II. eranskina). Behin fitxa eginda 15 ipuinak aztertu dira otsoaren irudia ikusteko, ea aldatu den edo ez egiaztatzeko.

#### 4. EMAITZAK

Aurreko atalean aipatu bezala, fitxa teknikoaren zenbait ataletan bereizita ageri da eta atal horiek abiapuntutzat hartuko dira emaitzak zeintzuk diren jakiteko.

Fitxa teknikoaren lehenengo atala pertsonaiaren protagonismoa da. Ipuinak aztertu ostean, nabarmendu behar da otsoa hamaika ipuinetan protagonista dela, eta antagonista moduan, aldiz, lau. Antagonista den lau ipuinetatik hiru herri ipuinek direla azpimarratu behar da, eta laugarrena, aldiz, *¡Waah!* izeneko ipuinean otsoa antagonista da. Azken kasu honetan eta irudian ikus daitekeen



moduan, otsoa hiru txerritxoekin atzetik agertzen da haiek jan nahian. Beraz, *¡Waah!* ipuinean zein lehenik aipatutako herri ipuinetan, otsoa protagonista bezala agertu beharrean antagonista moduan ageri da.

Hurrengo itema ipuinetan zehar izandako eboluzioa da, eta kasu honetan, nahiko desorekatuta dagoela esan beharra dago. Datuek adierazten dute oraingo ipuinetan



otsoaren eboluzioa borobila izan dela (12 ipuinetan, gaur egungo ipuin guztietan), eta otsoak izandako eboluzio laua, berriz, herri ipuinetan (3). *Hiru txerritxo* izeneko ipuin berrian, adibidez, protagonistaren izaera eta



sentimenduak aldatzen dira, istorioari buelta bat emateko. Eskolan egindako lagun berriari isilekoa jakinarazi zion eta argazkian ikus daitekeen moduan, biek arazoari aurre egin zioten.

Otsoaren fisikoari dagokionez, herri ipuinek eta gaur egungo ipuinek dituzten aldeak argi ikusi daitezke. Esate baterako, herri ipuinetan agertzen den otsoa handia, indartsua eta heldua da (*Txanogorritxu* ipuinean bezala, adibidez), baina gaur egungo ipuinetan denetarik dago. Orokorrean, gaur egungo ipuinek herri ipuinekin bat egiten dute. Aztertutako ipuinetan otsoa handia (12), indartsua (11) eta heldua (11) izan da esate baterako *¡El lobo ha vuelto!* ipuinean (argazkian agertzen den moduan), baina baita txikia (3), ahula (4) eta gaztea (4) ere, *Otsoa dator!* ipuinean bezala.



Bestetik, otsoaren izaera dago. Herri ipuinetan ageri ohi den otsoaren izaera nahiko bereizgarria da, hots, otso gaiztoa, azkarra, baikorra, gezurtia eta harroputza aurkitu daiteke. Baina gaur egungo ipuinetan otsoaren izaerak kontra egiten du. Hala



nola, otsoa gaiztoa (7, adib. *Osaba Otso*), eta ona (8, adib. *El lobo rojo y Caperucita Feroz*) izan daiteke, otso azkarrak (14) eta baikorrak (13) nagusitzen dira, baina herri ipuinekin alderatuz oraingo ipuinetako otsoak egiazaleak (12) eta apalak (8) direla azpimarratu behar da. Esate baterako, *Osaba*




*Otso* ipuinaren protagonista bere hitza bete nahian, Karmeleren etxera sartzen da neskatoa jateko. Irudian ikus daitekeen moduan, istorioaren amaiera honek otso gaiztoa, azkarra, egiazalea eta harroputza dela adierazten du.

Oraingo eta lehengo otsoen elikadurari buruz, berriz, otso haragijaleak (7) nagusitzen dira, hala nola, *Neu naiz azkarrena* ipuinean otsoak Txanogorritxu eta amona jan nahi dituen haragijalea dela esan dezakegu, nahiz eta azkenean ez jan, eta gainera, horietatik hiru herri ipuinak direla nabarmendu behar da. Gainerakoak (7) ez dakigu otso haragijaleak ala belarjaleak diren, bat izan ezik, otso hura belarjalea delako, *Afaltzera etorri zen arkumetxoa* izeneko ipuinean agertzen den otsoa. Aipatutako azken istorioaren hasieran, otsoa arkumetxoa jateko plana aurrera eramaten saiatzen da, amaieran plana bertan behera utziz eta arkumetxoarekin barazki-zopa afalduz.



Kokapenari dagokionez, herri ipuinetan zein gaur egungo ipuinetan agertzen den otso basoan (12) bizi da, gainerakoak herrian (2) eta beste bat lekuri ez daukana, irudikapenek ez dutelako inolako informazio gehigarri ematen, ¡*Waah!* ipuinean esaterako. Aipatu bezala, aztertutako ipuinetatik bik otso herrian kokatu dute, *Hiru txerriren txerrikeriak* eta *Osaba Otso*,







besteak beste, ipuinetan agertzen diren pertsonaiak eskolara joaten direlako, nahiz eta ipuinean zehar basoa aipatu edo agertu izan.

Azkenik, fitxa teknikoaren itemekin amaitzeko pertsonaiaren irudia dago. Kasu honetan, herri ipuinen eta gaur egungo ipuinen arteko aldeak nabarmenak dira. Alde batetik, herri ipuinetan agertzen den otsoaren irudia beldurra eta ikaskizuna adierazteko erabilia da. Bestetik, oraingo ipuinetan, beldurra, barrea, pena, adiskidetasuna eta ikaskizuna adierazten du. Aurretik irudikatu dudan moduan, *Osaba Otso* ipuina beldurraren adierazle nagusia dela ikus daiteke. *El lobo que se cayó de un libro* ipuinean protagonistak katu batekin topo egiten du eta berarengandik ihes egiten ari den bitartean erori den ipuinaren bila joaten da, hainbat ipuinetan sartzen saiatuz eta bertako pertsonaiak ipuinetatik aterako dute,

irakurleari barrea eraginez. Penaren adierazlea aurretik aipatutako *Hiru txerriren txerrikeriak* ipuina da. Istorioan otso txikia txerri txo baten laguna egiten da eta bere laguntzarekin otsoak duen arazoari aurre egitea lortzen dute. *El lobo rojo y Caperucita feroz* izeneko ipuinean, aldiz, otso gorriaren salbazioan bere lagunak abiatzen dira, Txanogorritxu krudelak merezia hartzeko, adiskidetasuna azpimarratuz. Azkenik, herri ipuinetan gertatzen ohi den bezala, oraingo ipuin batzuetan ikaskizuna ageri da, esaterako,




*¡La verdadera historia de los tres cerditos!* Narratzaileak, kasu honetan, otso jaunak kartzelatik benetako istorioan gertatutakoa kontatzen du. Ipuinak istorio ezagunaren beste bertsio bat posible dela erakusten dio irakurleari, ipuinari ikuspegi berria emanez.




Lehen aipatu bezala hautatutako ipuin guztietatik ipuin beraren bi bertasioak aztertu dira, *Osaba Otso* ipuinaren bi bertasioak hain zuzen ere. Ipuin honen bertasioak *Tio Lobo* herri ipuinaren egokitzapena dira, Ballesterosek idatzia eta Olmosek marraztua. *Osaba Otso* ipuinaren lehenengo bertasioaren (2000) eta bigarren bertasioaren (2019) artean ia hogeitau urte igaro dira, eta ipuina hautatu denez, bi bertasioak kontrajartzea interesgarria izango zen.

Testuari dagokionez, egileak ez ditu hainbeste aldaketa egin, adibidez, lehenengo bertasioan, Osaba Otsok kuleroak janzten dituela esaten du; bigarren bertasioan, ordea, galtzontziloak janzten dituela ageri da. Beste batean, esate baterako, bigarren bertasioan aurreko bertasioan agertzen ez den esaldia ageri da: “Karmele, orduan, gogoetan hasi zen...”. Esaldi hura Osaba Otso afaririk gabe utzia zuenean agertzen da, aurreko testua osatu nahian. Nahiz eta horrelako adibide gehiago egon, bi bertasioen arteko ilustrazioak aztertzea beharrezkoa da, aldaketak nabariak dira-eta.




